

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN XIV. ZINEMALDIA.

2016eko apirilaren 15etik 22ra
“FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA”

GAZTE EPAIMAHAIA

2016eko apirilaren 15tik 22ra bitartean Donostiako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldia izango da, Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Bulegoaren bitartez, eta Donostia Kulturak antolatua.

Giza Eskubideen Zinemaldiak, mundu osoan gertatzen diren giza eskubideen urraketekiko, herritarren kontzientzia kritikoari eragin nahi dio, baita zenbait balio indartu eta lau haizeetara zabandu ere: bizikidetzak, justizia, elkartasuna, askatasuna...

Aurreko urteetan bezala, Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa ere izango da; eta hartara film laburrak —dokumentalak zein fikzio lanak— aurkeztuko dira, hainbat herritatik eta nazioarteko zinemaldi ospetsuetatik etorriak.

Gazte Epaimahaiaren ardurak izango da lehiara aurkeztutako film labur guztiak ebaztea, giza eskubideen gaineko sentsibilizazioa eta zinemagintzaren kalitatea kontuan izanik. Gazte Epaimahaiak film laburrik onenari 3.000 euroko saria emango dio.

Epaimahaikide aritzeak **UPV/EHU unibertsitatean aukera libreko unibertsitate kredituak** lortzeko aukera ematen du (gehienez 30 ordu), gradu ikasleentzat izan ezik. Eta **DEUSTUKO ECTS 1**.

IZENA EMATEA

Izena emateko epea **2016ko martxoaren 28an** amaituko da.

Izena ematea on-line egingo da helbide elektronikoan: www.zinemaetagizaeskubideak.com

Behin epea amaiturik, martxoaren 30ean zozketa egingo da eta momentu horretan izena eman duten guztiak, Webgunean, Gazte Epaimahaiaren parte hartzeko aukera duten ala itzarote-zerrendan aurkitzen diren ikusi ahal izango dute. www.zinemaetagizaeskubideak.com webguneraren bitartez pertsona bakoitzaren “estatus”aren kontsultak egiteko aukera izango dute uneoro. Baieztapenak web horren bidez eman beharko dira.

Epaimahaiak gizonen eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatua izango du.

GAZTE EPAIMAHAIA OSATZEKO BALDINTZAK

- **18 eta 30 urte** bitartean izatea Zinemaldia garatzen den unean.
- Zinemaldia ofizialki hasi baino lehen*, **saio trinko batera joatea** ezinbestekoa izango zaie. Egun horretan, lehian diren film labur gehienak proiektatu eta bozkatuko dira, hau da, 16:30etako eta 22:30etako saioetakoak. Parte hartze **azalpenak ere emango dira eta behin betiko izena emateko unea izango da**. Hau da, agertzerik ez duten pertsonak epaimahaikide izateko eskubidea galduko dute. Saioak, gutxi gorabehera, 3,5 orduko iraupena izango du (film laburren iraupenaren arabera).

- **Apirilaren 15etik 21era, Victoria Eugenia antzokian, 19:00etan izango diren saioetara agertu, lehiaketako film laburra eta luzea ikusi eta geroko solasaldian egotea ezinbesteko da.** Saio bakoitzak 3 orduko iraupena du gutxi gorabehera (film laburra, film luzea eta solasaldia). Saioaren amaieran, hautestontzia jarriko da, film laburren botoak emateko. Derrigorrezkoa da bozkatzea eta izena jartzea.
- Zinemaldian bestelako jarduera osagarriak —hitzaldiak, tailerrak edo mahai inguruak— ere programatu daitezke, eta halakoak ere baliagarriak izan daitezke aukera libreko kreditu gehiago lortzeko.
- Gazte Epaimahaiko kide moduan parte hartzeko konpromisoak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar.

EPAIMAHAIKIDEEN ESKUBIDEAK:

- Zinemaldiko antolatzaileek egindako **diploma** eta **ziurtagiri** bat jasotzea, egindako jarduera eta hartan emandako orduak adieraztekoa. Gerora, unibertsitate bakoitzari dagokio aukera askeko kredituak balioztatzea, eta ematea, ikasleek hala eskatuta. **UPV/EHUn graduren bat ikasten dutenek ezin izango dituzte kredituak eskuratu.**
- **Doan** ikusi ahal izatea Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiko 19:00etako saio guztiak, eta 16:30etako eta 22:30etako saioetarako bina sarrera eskuratzea.
- Donostiako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiko **katalogoa eta programa** eskuratzea.
- Bi abonu eskuratzea 2016eko Fantasiatzko eta Beldurrezko XXVII. Zinema Asteak Victoria Eugenia Antzokian egingo dituen saioetarako.
- 2016ko urrian Dajlan (Aljeria) errefuxiatu saharar kanpamentuan izango den FiSahararako, Saharako Zinemaldirako bi bidaien zozketan parte hartu.
- Epaimahaikideek, gutxienik jota, 19:00etako **saioen % 80-etara joan beharko dute.** Bestela, ez dute aipaturiko kontraprestaziorik jasoko, ezta zozketan parte hartuko edota hurrengo zinemaldietan epaimahaikide izango ere.

* *Aukeraturiko epaimahaikideei Zinemaldi aurreko bilkura noiz izango den adieraziko diete.*